*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA**[1]

| | |
|---|---|
| Zuzentaraua: | 2009/38/EE zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko maiatzaren 6koa, europar enpresa-batzordea edo erkidego-mailako enpresetan eta enpresa-taldeetan langileei informazioa emateko eta kontsulta egiteko prozedura eratzeari buruzkoa |

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

1 Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2009/38/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 6 de mayo de 2009, sobre la constitución de un comité de empresa europeo o de un procedimiento de información y consulta a los trabajadores en las empresas y grupos de empresas de dimensión comunitaria» *(Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 122/28, 2009/05/16koa)»*

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**2009/38/EE zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena,**

**2009ko maiatzaren 6koa,**

**europar enpresa-batzordea edo erkidego-mailako enpresetan eta enpresa-taldeetan langileei informazioa emateko eta kontsulta egiteko prozedura eratzeari buruzkoa**

**(bertsio bategina)**

(Texto pertinente a efectos del EEE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatua, eta, bereziki, haren 137. artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute [1],

Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin zaio,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote [2],

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Kontseiluaren 94/45/EE zuzentaraua, 1994ko irailaren 22koa, eta europar enpresa-batzordea edo erkidego-mailako enpresetan eta enpresa-taldeetan langileei informazioa emateko eta kontsulta egiteko prozedura eratzeari buruzkoa [3], funtsean aldatu behar da. Argitasun handiagoa izateko, komeni da zuzentarau hori bategitea.

(2) 94/45/EE zuzentarauko 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, Batzordeak, estatu kideei eta Europa mailako gizarte-mintzaideei kontsultatu ondoren, hura aplikatzeko moduak berrikusi ditu, eta lantaldearen mugak egokiak ote diren aztertu du bereziki, beharrezkoa bada aldaketa egokiak proposatzeko.

(3) Estatu kideei eta Europa mailako gizarte-mintzaideei kontsultatu ondoren, Batzordeak 94/45/EE zuzentarauaren aplikazio-egoerari buruzko txosten bat aurkeztu zuen Europako Parlamentuan eta Kontseiluan 2000ko apirilaren 4an.

(4) Tratatuko 2. paragrafoko 138. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Batzordeak kontsulta egin die Erkidegoko gizarte-mintzaideei arlo horretako erkidego-egintza batek izan zezakeen nondik norakoari buruz.

(5) Kontsulta horren ondoren, Batzordeak komenigarritzat jo zuen erkidego-egintza bat abiaraztea, eta berriz kontsulta egin zien erkidegoko gizarte-mintzaideei aztertutako proposamenaren edukiari buruz, Tratatuko 3. paragrafoko 138. artikuluari jarraiki.

(6) Bigarren kontsulta-fase hori bukatutakoan, gizarte-mintzaideek ez zioten Batzordeari jakinarazi akordioa lortzea ekar zezakeen prozesuari ekiteko beren asmo bateratua, Tratatuko 4. paragrafoko 138. artikuluan aurreikusi bezala.

(7) Beharrezkoa da modernizatzea langileekiko nazioz gaindiko informazio- eta kontsulta- arloko erkidego-legedia, helburu hauek lortzeko: langileen nazioz gaindiko kontsulta- eta informazio-eskubideen eraginkortasuna lortzea; sortutako europar enpresa-batzordeen proportzioa handitzea, indarrean dauden akordioen aplikazioari eusten zaion bidenabar; 94/45/EE zuzentarauaren aplikazio praktikoan ikusitako arazoak konpontzea; eta hartako xedapen edo ez-aipatze batzuetatik ondorioztatzen den segurtasun juridikorik eza konpontzea, hala nola Erkidegoko tresna legegileen artikulazioa hobetzea langileekiko informazioari eta kontsultari dagokienez.

(8) Tratatuko 136. artikuluari jarraiki, gizarte-elkarrizketa sustatzea da Erkidegoaren eta estatu kideen helburuetako bat.

(9) Zuzentarau hau langileekiko informazioaren eta kontsultaren alorrean estatu kideen jarduera osatu eta babesteko erkidego-esparruaren barruan dago. Espero da esparru honek ahalik eta gutxien mugatuko dituela enpresei edo establezimenduei ezarritako kargak eta, aldi berean, emandako eskubideen benetako erabilera bermatuko duela.

(10) Barne-merkatuaren funtzionamenduak berekin dakartza zenbait prozesu: enpresak biltzea, mugaz gaindiko bat-egiteak, beretzeak eta elkarketak; horrenbestez, enpresen eta enpresa-taldeen transnazionalizazioa gertatzen da. Jarduera ekonomikoen garapena orekatua izatea bermatzeko, beharrezkoa da estatu kide batzuetan lan egiten duten enpresek eta enpresa-taldeek informazioa ematea eta kontsultak egitea hartzen dituzten erabakiek eragindako langileei.

(11) Estatu kideetako legedietan edo praktiketan aurreikusitako langileekiko informazio- eta kontsulta-prozedurak askotan ez zaizkio egokitzen langile horiei eragiten dien erabakia hartu duen erakundearen nazioz gaindiko egiturari. Egoera horren ondorioz, baliteke erabakiek eragindako langileei tratu desberdina ematea enpresa beraren eta enpresa-talde beraren barruan.

(12) Erabaki egokiak hartu behar dira erkidego-mailako enpresa edo enpresa-taldeetako langileekiko informazioak eta kontsultak behar bezalakoak izan daitezen zaintzeko, baldin eta eragiten dieten erabakiak lan egiten duten estatua ez den estatu kide batean hartzen badira.

(13) Zenbait estatu kidetan lan egiten duten enpresa nahiz enpresa-taldeetako lankideekiko informazioak eta kontsultak egokiak izan daitezen ziurtatzeko, europar enpresa-batzordea eratu behar da edo beste prozedura egoki bat ezarri langileekiko nazioz gaindiko informazio eta kontsultarako.

(14) Beharrezkoa da langileekiko informazio- eta kontsulta-moldeak zehaztea eta praktikan jartzea, zuzentarau honetako xedapenen ikuspuntutik eraginkorrak izan daitezen bermatzeko. Horretarako, europar enpresa-batzordeari eman beharreko informazioak eta egin beharreko kontsultak bide eman behar dute enpresari irizpena emateko une egokian, haren egokitze-ahalmena arriskuan jarri gabe. Ezinbestekoa da

elkarrizketa orientabideak lantzen diren maila berean gertatzea eta langileen ordezkarien inplikazioa eraginkorra izatea aldaketa aurreratu eta egiten laguntzeko.

(15) Beharrezkoa da langileei eta haien ordezkariei zuzendaritza- eta ordezkaritza-maila egokian ziurtatzea informazioa eta kontsulta, aztertzen den gaiaren arabera. Horretarako, europar enpresa-batzordearen ahalmena eta esku-hartze esparrua ordezkaritza-organo nazionalenetatik bereizi behar dira, eta nazioz gaindiko gaiei baino ez die heldu behar.

(16) Gai bat nazioz gaindikoa ote den erabakitzeko, komeni da kontuan hartzea bai izan ditzakeen ondorioen zenbaterainokoa bai datxekion zuzendaritza- eta ordezkaritza-maila. Horretarako, enpresa osoari edo enpresa-talde osoari eragiten dioten gaiak hartzen dira nazioz gaindiko gaitzat, edo, behintzat, bi estatu kideri eragiten dietenak. Gai horien artean daude, eragindako estatu kideen kopurua edozein izanda ere, izan ditzaketen ondorioen ikuspegitik Europako langileentzat garrantzia dutenak, edo estatu kideen artean jarduerak transferitzea eskatzen dutenak.

(17) Beharrezkoa da “kontrola daukan enpresa” definitzea zuzentarau honen ondorioetarako soilik, beste testu batzuetan "talde" eta "kontrol" hitzez dauden definizioak baztertu gabe.

(18) Estatu kide batean baino gehiagotan lan egiten duten enpresetako edo enpresa-taldeetako langileekiko informazio- eta kontsulta-mekanismoek establezimendu guztietarako balio behar dute edo, kasuaren arabera, estatu kideetan finkatutako taldeko enpresa guztietarako, enpresaren zuzendaritza nagusia edo, talde baten kasuan, kontrola daukanarena estatu kideetako lurraldean egon zein ez.

(19) Aldeen autonomia-printzipioari jarraiki, langileen ordezkariei eta enpresako edo talde batean kontrola duen enpresako zuzendaritzari dagokie adostasunez erabakitzea nolakoa izango den europar enpresa-batzordea edo informazio eta kontsultarako beste edozein prozedura, hala nola hori nola osatuta egongo den, zer eskumen izango dituen, nola funtzionatuko duen eta zer finantza-prozedura eta -baliabide izango dituen, beren egoera berezira egoki dadin.

(20) Subsidiariotasun-printzipioari jarraiki, estatu kideei dagokie zehaztea nor diren langileen ordezkariak eta, zehazki, egokitzat joz gero, langile-maila guztien ordezkaritza orekatua erabakitzea.

(21) Komeni da langileekiko informazio eta kontsulta kontzeptuak argitzea, arloan eman eta nazio-esparru batean aplikagarriak diren zuzentarau berrietakoenen arabera, hiru helburu hauek lortzeko: elkarrizketaren nazioz gaindiko mailaren eraginkortasuna sendotzea; elkarrizketa horren maila nazionalaren eta nazioz gaindikoaren arteko artikulazio egokia ahalbidetzea; eta beharrezko segurtasun juridikoa bermatzea zuzentarau honen aplikazioan.

(22) “Informazio” hitza definitzean, kontuan hartu behar da langileen ordezkariek haren azterketa egokia egin behar dutelako helburua, eta horrek informazioa une eta era egokian eta eduki egokiarekin ematea eskatzen du, horren ondorioz enpresetan erabakiak hartzeko prozesua atzeratu gabe.

(23) “Kontsulta” hitza definitzean, kontuan hartu behar da erabakiak hartzeko prozesurako baliagarria izango den irizpen bat ematea ahalbidetu behar delako helburua, eta horrek kontsulta une eta era egokian eta eduki egokiarekin egitea eskatzen du.

(24) Zuzendaritza nagusia estatu kideetako lurraldetik kanpo duen enpresa baten edo talde bat kontrolatzen duen enpresa baten kasuan, estatu kide batean dagoen ordezkariak (horretarako izendatua) aplikatu behar ditu langileekiko informazioari eta kontsultari buruzko zuzentarau honetako xedapenak, edo ordezkari hori izan ezean, estatu kideetan langile-kopuru handiena duen establezimenduak edo kontrolatutako enpresak.

(25) Enpresa batek edo enpresa-talde batek negoziatzen hasteko beharrezko informazioaren transmisioan daukan erantzukizuna ondo zehaztu behar da, langileek erabakitzea izan dezaten lan egiten duten enpresa edo enpresa-taldea erkidego-mailakoa ote den, eta beharrezko harremanei ekin diezaieten negoziatzen hasteko eskaera egiteko.

(26) Negoziazio-batzordeak estatu kideetako langileak modu orekatuan ordezkatu behar ditu. Langileen ordezkariek beren artean hitzartzeko aukera izan behar dute beren jarrerak zehazteko zuzendaritza nagusiarekiko negoziazioari begira.

(27) Bidezko da aitortzea eginkizun garrantzitsua bete dezaketela onartutako sindikatuek europar enpresa-batzordeen sorrera-akordioen negoziazioan edo birnegoziazioan, laguntza eman baitiezaiekete babes hori jasotzeko beharra adierazten duten langileen ordezkariei. Europar enpresa-batzorde berrien sorreraren jarraipena egin eta jardunbide egokiak sustatzeko, informazioa emango zaie negoziazioak hasteko europar gizarte-mintzaide gisa onartutako sindikatu eskudunei eta enplegatzaile-erakundeei. Sindikatu- eta enplegatzaile-erakunde eskudun eta onartuak Batzordeak Tratatuko 138. artikuluaren arabera kontsultatutako gizarteko mintzaide-erakundeak dira. Batzordeak erakunde horien zerrenda argitaratu eta eguneratu egiten du.

(28) Europar enpresa-batzordeen sorrera eta funtzionamendua arautzen dituzten akordioek haien aldaketari, salaketari edo, behar izanez gero, birnegoziazioari dagozkion modalitateak jaso behar dituzte, bereziki enpresaren edo taldearen perimetroa edo egitura aldatzen bada.

(29) Akordio horiek enpresaren edo taldearen baldintza berezietarako egokiak diren langileekiko informazio- eta kontsulta-maila nazional eta nazioz gaindikoen artikulazio-moduak zehaztu behar dituzte. Modu horiek zehaztean, langileen ordezkaritza-organoen kasuan kasuko eskumenak eta interbentzio-esparruak zehaztu behar dira, bereziki aldaketari aurrea hartzeari eta hura kudeatzeari dagokienez.

(30) Akordio horiek, beharrezkoa denean, komite murriztu bat sortzeko eta haren funtzionamendua zehazteko aukera jaso behar dute, europar enpresa-batzordearen ohiko jarduera koordinatua eta eraginkorragoa izan dadin, eta informazioa eta kontsulta ahalik eta lasterren egin ahal izan daitezen ezohiko egoeretan.

(31) Langileen ordezkariek europar enpresa-batzordea eratzeko ez eskatzea erabaki dezakete, edo, bestela, alde interesdunek langileekiko informazioa eta kontsulta egiteko nazioz gaindiko beste edozein prozedura erabaki dezakete.

(32) Komeni da xedapen subsidiario batzuk aurreikustea, aldeek hala erabakiz gero aplikagarriak izango direnak, baldin eta zuzendaritza nagusiak ez badu negoziatu nahi, edo negoziazioak amaitutakoan adostasunik lortzen ez bada.

(33) Langileen ordezkariek, beren eginkizuna osorik beteko badute, eta europar enpresa-batzordea baliagarria izango bada, kontuak eman beharko dizkiete ordezkatzen dituzten langileei, eta behar duten prestakuntza jaso beharko dute.

(34) Komeni da aurreikustea zuzentarau honen esparruaren barruan diharduten langileen ordezkariek, beren eginkizunak betetzean, langileen ordezkarientzat haien jatorriko legediak eta/edo ohiturak aurreikusitakoen antzeko bermeak eta babes bera izatea. Ez dute inolako diskriminaziorik jasan behar beren bidezko jardueragatik, eta babes egokia izan behar dute kaleratzeari eta beste zigor batzuei dagokienez.

(35) Zuzentarau honetan aurreikusitako betebeharrak betetzen ez badira, estatu kideek neurri egokiak hartu behar dituzte.

(36) Erkidegoko zuzenbidearen printzipio orokorrei jarraiki, prozedura administratiboak edo judizialak, hala nola zigor eraginkor, atzera-eragile eta lege-hausteen larritasunaren araberakoak erabili behar dira, sorburua zuzentarau honetan duten betebeharrak bete ezean.

(37) Eraginkortasuna, koherentzia eta segurtasun juridikoa direla eta, beharrezkoa da elkarri ondo egokituta egotea, alde batetik, zuzentarauak eta, bestetik, Zuzenbideak eta/edo erkidegoko eta nazioetako ohiturek erabakitako langileekiko informazio- eta kontsulta-mailak. Enpresa edo talde bakoitzaren barruan, lehentasuna eman behar zaio egokitze-modu horien negoziazioari. Ahalegin horretan adostasuna lortu ezean, eta lanaren antolaketan edo lan-kontratuetan aldaketa handiak ekar ditzaketen erabakiak hartu behar direnean, prozesua aldi berean egin behar da nazioan eta europar mailan, eta errespetatu egin behar dira langileen ordezkaritza-organo bakoitzaren eskumenak eta esku-hartze esparruak. Europar enpresa-batzorde batek irizpen bat ematean, horrek ez du eraginik izan behar zuzendaritzak, betiere legedi eta/edo ohitura nazionaletan aurreikusitako denbora-sekuentziak errespetatuta, beharrezko kontsultak egiteko daukan ahalmenean. Baliteke legedi eta/edo ohitura nazionalak egokitu behar izatea, europar enpresa-batzordeak, hala egokituz gero, informazioa langileen ordezkaritza-organo nazionalek baino lehen edo aldi berean jaso dezan, langileen babes-maila orokorrari kalterik egin gabe.

(38) Zuzentarau honek ez du eraginik izan behar ez 2002ko martxoaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/14/EE zuzentarauan jasotako informazio- eta kontsulta-prozeduretan (zuzentarau horrek Europar Erkidegoko langileekiko informazioari eta kontsultari dagokien esparru orokorra arautzen baitu [4]), ez 1998ko uztailaren 20ko Kontseiluaren 98/59/EE zuzentarauko 2. artikuluan agertzen diren prozedura espezifikoetan (zuzentarau hori estatu kideetan langileen kaleratze kolektiboez dauden legediak elkarri hurbiltzeari buruzkoa baita [5]), ez eta 2001eko martxoaren 12ko Kontseiluaren 2001/23/EE zuzentarauko 7. artikuluan agertzen direnetan ere (zuzentaraua enpresak, jarduera-guneak edo enpresen nahiz jarduera-guneen zatiak eskualdatzen direnean langileen eskubideak babesteaz estatu kideetan dauden legediak elkarri hurbiltzeari buruzkoa baita [6]).

(39) Komeni da tratu berezia ematea 1996ko irailaren 22an langile guztiei aplikatzeko moduko langileekiko nazioz gaindiko informazio- eta kontsulta-prozedura bat aurreikusten zuen akordio bat zeukaten erkidego-mailako enpresa eta enpresa-taldeei.

(40) Enpresaren edo taldearen egituran aldaketa garrantzitsuak gertatzen direnean (adibidez, bategite, erosketa edo zatiketetan), europar enpresa-batzordea edo -batzordeak egokitu egin behar dira. Egokitze hori, lehentasunez, aplikagarria den akordioko klausulen arabera egin behar da, baldin eta klausulok benetan bidea ematen badute beharrezko egokitzapena egiteko. Bestela, eta beharra frogatuta hala eskatuz gero, beste akordio bat negoziatzen hasi behar da, eta horretan beharrezkoa da jadanik sortutako europar enpresa-batzordeko edo -batzordeetako kideek parte hartzea. Egitura aldatu bitarteko aldia sarritan erabakigarria izaten denez, eta langileekiko informazioa eta kontsulta bideratzeko, europar batzordeak edo batzordeek funtzionatzen jarraitu behar dute, inoiz edo egokitzapenak eginez, beste akordio bat lortu bitartean. Beste akordio bat sinatutakoan, aurrez sortutako batzordeak desegin egin behar dira, eta haiek eratzeko akordioak baliogabetu, edozein izanda ere akordio horietan baliotasun- edo salaketa-esparruan jasotako xedapenak.

(41) Egokitze-klausula hori erabili ezean, komeni da akordioek indarrean jarraitzeko bidea ematea, derrigorrezkoa izan ez dadin haien negoziazioa, beharrezkoa ez denean. 1996ko irailaren 22a baino lehen 94/45/EE zuzentarauko 1. paragrafoko 13. artikuluaren edo 97/74/EE zuzentarauko 1. paragrafoko 3. artikuluaren arabera egindako akordioak indarrean dauden bitartean, komeni da xedatzea ez zaizkiola aplikatuko sorburu zuzentarau honetan duten betebeharrak. Gainera, zuzentarau honek ez du sortzen 1996ko irailaren 22a eta 2011ko ekainaren 5a bitartean 94/45/EE zuzentarauko 6. artikuluaren arabera egindako akordioak berriz negoziatzeko inolako betebehar orokorrik.

(42) Aldeek beste zerbait erabakitzeko daukaten ahalmena baztertu gabe, haien adostasunik gabe sortutako europar enpresa-batzordeari informazioa eman behar zaio, eta kontsulta egin, zuzentarau honetan enpresen edo enpresa-taldeen jarduerez eta proiektuez adierazitako helburua gauzatzeko eta, horrenbestez, batzordeak zuzentarauak gutxienez bi estatu kidetako langileen interesetan izan ditzakeen ondorioak ebaluatzeko aukera izan dezan. Horretarako, enpresari edo kontrola daukan enpresari eskatu behar zaio langileek aukeratutako ordezkariei langileen interesen gaineko informazio orokorra emateko, bai eta, zehazkiago, langileen interesetan eragina duten enpresaren edo enpresa-taldearen jardueretako alderdien gainekoa ere. Europar enpresa-batzordeak bidea izan behar du irizpen bat egiteko bilera amaitutakoan.

(43) Langileen interesetan eragin handia duten erabakietan, informazioa eman eta kontsulta egin behar zaie ahalik eta lasterren langileek aukeratutako ordezkariei.

(44) Xedapen subsidiarioen edukia argitu behar da, akordioa lortu ezean aplikatu egiten baitira, negoziazioetan erreferentzia izateaz gain, bai eta nazioz gaindiko informazio- eta kontsulta-behar eta -ohituren eboluziora egokitu ere. Komeni da bereiztea zer esparruri buruz eman behar zaion informazioa eta zer esparruri buruz egin behar zaion kontsulta europar enpresa-batzordeari; izan ere, horrek berekin dakar egindako irizpen bati buruzko erantzun arrazoitua jasotzeko aukera. Batzorde murriztuak beharrezko koordinazio-eginkizuna bete eta ezohiko egoerei eraginkortasunez aurre egin ahal izateko, batzordeak bost kide ere izan beharko ditu, eta aldizka bildu behar da.

(45) Estatu kideek zuzentarau honen xedea (langileekiko informazio- eta kontsulta-eskubidea hobetzea erkidego-mailako enpresetan eta enpresa-taldeetan) behar bezala lortzerik ez dutenez eta, beraz, erkidego-mailan hobeto lor daitekeenez, Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatuko 5. artikuluan finkatutako subsidiariotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, zuzentarau honek helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik ez ditu jasotzen.

(46) Zuzentarau honek funtsezko eskubideak errespetatzen ditu eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean aitortutako printzipioak betetzen ditu bereziki. Eta hala, langileen edo haien ordezkarien eskubide bat guztiz errespetatzen dela zaindu nahi du bereziki zuzentarau honek, haien eskubidea baita maila egokietan bermatua izatea informazioa eta kontsulta garaiz helaraziko zaizkiela Batasuneko Zuzenbidean eta legedi nahiz ohitura nazionaletan aurreikusitako kasu eta baldintzetan (Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 27. artikulua).

(47) Zuzentarau hau ordenamendu juridiko nazionalean biltzeko betebeharra aurreko zuzentarauen aldean funtsezko aldaketa dakarten xedapenetara mugatu behar da. Aldatu gabeko xedapenak biltzeko betebeharrak aurreko zuzentarauetan du jatorria.

(48) Erakundeen arteko “Lege hobeak egitea” izeneko Akordioko 34. puntuaren arabera [8], estatu kideak bultzatu nahi dira zeinek bere interesean eta Erkidegoarenean bere taulak egitera, bai eta horiek argitaratzera ere, zuzentarau hau eta transposizio-neurriak bat datozela erakusteko ahal den neurrian.

(49) Zuzentarau honek ez du eraginik izan behar II. eranskineko B zatian agertzen diren zuzentarauak zuzenbide nazionalean sartzeko eta aplikatzeko epeei dagokienez estatu kideek dauzkaten betebeharretan.

HONAKO ZUZENTARAU HAU EMAN DUTE:

I. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Xedea

1. Zuzentarau honen xedea da langileekiko informazio- eta kontsulta-eskubidea hobetzea erkidego-mailako enpresetan eta enpresa-taldeetan.

2. Hori dela eta, erkidego-mailako enpresa bakoitzean eta erkidego-mailako enpresa-talde bakoitzean europar enpresa-batzorde bat edo langileekiko informazio- eta kontsulta-prozedura bat sortuko da, betiere horretarako eskaera egin bada 5. artikuluko 1. paragrafoan aurreikusitako prozeduraren arabera, langileei informazioa eman eta kontsulta egiteko. Langileekiko informazio- eta kontsulta-motak bai haien eraginkortasuna bermatzeko bai enpresaren edo enpresa-taldearen erabakiak hartzeko era eraginkorra izateko moduan zehaztu eta aplikatuko dira.

3. Langileekiko informazioa eta kontsulta zuzendaritza- eta ordezkaritza-maila egokian egingo dira, aztertzen den gaiaren arabera. Horretarako, europar enpresa-batzordearen eskumenak eta zuzentarau honetan araututako langileekiko informazio- eta kontsulta-prozeduraren norainokoa nazioz gaindiko gaietara mugatuko dira.

4. Erkidego-mailako enpresa edo enpresa-talde osoari eragiten dioten gaiak hartuko dira nazioz gaindiko gaitzat, edo enpresaren edo taldearen gutxienez bi enpresa edo establezimenduri eragiten dietenak, horiek bi estatu kidetan kokatuta badaude.

5. 2. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, erkidego-mailako enpresa-talde batek (2. artikuluko 1. paragrafoko c) idatz-zatiaren zentzuan) barruan hartzen badu edo baditu erkidego-mailako enpresa edo erkidego-mailako enpresa-talde (2. artikuluko 1. paragrafoko a) edo c) idatz-zatien zentzuan) den edo diren enpresa edo enpresa-talde bat edo bat baino gehiago, europar enpresa-batzordea talde-mailan osatuko da, 6. artikuluan aipatutako akordioek kontrakoa xedatu ezean.

6. 6. artikuluan aipatutako akordioek aplikazio-esparru zabalagoa aurreikusten dutenean izan ezik, europar enpresa-batzordeen botereak eta eskumenak eta langileekiko informazio- eta kontsulta-prozeduren norainokoak —prozedurok 1. paragrafoan aipatutako helburua lortzeko finkatuta daude— estatu kideetan kokatutako establezimendu guztiei egokituko zaizkie, enpresa erkidego-mailakoa bada, eta estatu kideetan kokatutako taldeko enpresa guztiei, enpresa-taldea erkidego-mailakoa izanez gero.

7. Estatu kideek zuzentarau hau merkataritza-ontzidiko itsasontzietan lan egiten dutenei ez zaiela aplikatu behar xedatu ahal izango dute.

2. artikulua

Definizioak

1. Zuzentarau honi dagokionez, definizio hauek hartuko dira oinarri:

a) "erkidego-mailako enpresa": estatu kideetan 1.000 langile edo gehiago dituen enpresa oro eta, gutxienez bi estatu kidetan, haietako bakoitzean 150 langile edo gehiago dituena;

b) "enpresa-taldea": kontrola egiten duen enpresa eta enpresa kontrolatuak biltzen dituen taldea;

c) "erkidego-mailako enpresa-taldea":

baldintza hauek betetzen dituen edozein enpresa-talde:

- 1.000 langile edo gehiago ditu estatu kideetan,

- gutxienez, taldeko bi enpresa-kide ditu zenbait estatu kidetan eta,

- gutxienez, taldeko enpresa batek 150 langile edo gehiago ditu estatu kide batean eta, gutxienez, taldeko enpresetako beste batek 150 langile edo gehiago dauzka beste estatu kide batean;

d) “langileen ordezkariak”: nazioetako legedietan eta/edo ohituretan aurreikusitako langileen ordezkariak;

e) "zuzendaritza nagusia": erkidego-mailako enpresaren zuzendaritza nagusia edo, erkidego-mailako enpresa-talde baten kasuan, kontrola daukan enpresarena;

f) "informazioa": enplegatzaileak datuak helaraztea langileen ordezkariei, langileek zer gairi buruz aritu diren jakin eta azter dezaten; informazioa une eta era egokian emango da, eta haren edukia ere egokia izango da, langileen ordezkariek litekeen eraginaren ebaluazio zehatza egin dezaten eta, hala egokituz gero, erkidego-mailako enpresako edo enpresa-taldeko organo eskudunarekiko kontsultak presta ditzaten;

g) "kontsulta": elkarrizketa hastea eta iritziak trukatzea langileen ordezkarien eta zuzendaritza nagusiaren edo zuzendaritzako beste maila egokiago baten artean, eta horretarako uneak, erak eta edukiak bide ematea langileen ordezkariek, emaniko informazioan oinarrituta eta zentzuzko epe batean, irizpen bat egin dezaten kontsultarako arrazoi izan diren proposatutako neurriei buruz, zuzendaritzaren erantzukizunak alde batera utzi gabe, kontuan har dezaten erkidego-mailako enpresa-taldean edo enpresan;

h) "europar enpresa-batzordea": langileekiko informazioa eta kontsulta gauzatzeko 1. artikuluko 2. paragrafoaren edo I. eranskineko xedapenen arabera eratutako batzordea;

i) "negoziazio-batzordea": 5. artikuluko 2. paragrafoaren arabera antolatutako taldea, helburutzat zuzendaritza nagusiarekin hauek negoziatzea daukana: europar enpresa-batzordea eratzea edo langileekiko informazio- eta kontsulta-prozedura ezartzea 1. artikuluko 2. paragrafoaren arabera.

2. Zuzentarau honi dagozkion xedeetarako, gutxieneko langile-taldea batez besteko langile-kopuruaren arabera erabakiko da, aurreko bi urteetan kontratatutako denbora partzialeko langileak kontuan hartuta, eta legedi eta/edo ohitura nazionalen arabera kalkulatuta.

3. artikulua

“Kontrola daukan enpresa” kontzeptuaren definizioa

1. Zuzentarau honen xedeetarako, “kontrola daukan enpresa” beste enpresa batean (“enpresa kontrolatuan”) —besteak beste, jabetzagatik, parte-hartze finantzarioarengatik eta estatutuengatik— eragin nagusia izan dezakeen enpresa da.

2. Kontrakoa frogatu ezean, pentsatuko da enpresa batek eragin nagusia izan dezakeela beste enpresa batean enpresa hura zuzenean edo zeharka egoera hauetako batean badago:

a) bigarren enpresaren kapital harpidetu gehiena dauka;

b) enpresak jaulkitako akzioei dagozkien boto gehienak dauzka, edo

c) enpresako administrazio-, zuzendaritza- edo kontrol-batzordeko kideen erdiak baino gehiago aukera ditzake.

3. 2. paragrafoari dagozkion xedeetarako, kontrola daukan enpresaren boto- eta izendapen-eskubideek barnean hartuko dituzte kontrolatutako beste edozein enpresaren eskubideak, bai eta, bere izenean izanda ere, kontrola daukan enpresaren kontura edo kontrolatutako beste edozein enpresaren kontura diharduen pertsona edo organo ororen eskubideak ere.

4. 1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, enpresa bat ez da hartuko partaidetza daukan beste enpresa baten “enpresa kontrolatzailetzat”, baldin eta enpresen arteko kontzentrazioen kontrolari buruzko 2004ko urtarrilaren 20ko Kontseiluaren 139/2004 (EE) Erregelamenduko 3. artikuluko 5. paragrafoko a) edo c) idatz-zatietan aipatutako sozietateetako bat bada [9].

5. Ez da uste izango eragin nagusia dagoenik soil-soilik agintari batek bere eginkizunak betetzen dituelako estatu kide batean likidazioari, porrotari, kaudimen-gabeziari, ordainketa-etendurari, hartzekodunen hitzarmenari edo antzeko beste prozedura bati buruz daukaten legediari jarraiki.

6. Enpresa bat kontrola duen enpresa ote den erabakitzeko, enpresa hori arautzen duen estatu kideko legedia erabiliko da.

Enpresa arautzen duen legedia estatu kide batekoa ez bada, enpresaren ordezkaria finkatuta dagoen lurraldeko estatu kideko legedia aplikatuko da edo, ordezkari hori ez badago, taldean langile-kopuru handiena duen enpresaren zuzendaritza nagusia kokatuta dagoen lurraldeko estatu kidekoa.

7. 2. paragrafoa aplikatzean legeen arteko gatazka gertatu eta talde bateko enpresa bik edo gehiagok 2. paragrafo horretako baldintzetako bat edo batzuk betez gero, paragrafo horretako c) idatz-zatian adierazitako baldintza betetzen duen enpresa hartuko da kontrola duen enpresatzat, beste enpresa batek eragin nagusia izan dezakeela frogatu ezean.

## II. ATALA

## EUROPAR ENPRESA-BATZORDEA EDO LANGILEEKIKO INFORMAZIO- ETA KONTSULTA-PROZEDURA BAT SORTZEA

### 4. artikulua

Europar enpresa-batzorde bat edo langileekiko informazio- eta kontsulta-prozedura bat sortzearen ardura.

1. Zuzendaritza nagusiaren ardura izango da 1. artikuluko 2. paragrafoan erkidego-mailako enpresa edo enpresa-taldeari dagokionez aipatutako europar enpresa-batzordea edo informazio- eta kontsulta-prozedura sortzeko beharrezko baldintzak eta baliabideak ezartzea.

2. Zuzendaritza nagusia ez badago kokatuta estatu kide batean, zuzendaritza nagusi horrek aukeratzen den estatu kide batean duen ordezkariak hartuko du bere gain 1. paragrafoan aipatutako ardura.

Ordezkaririk izan ezean, estatu kide batean langile-kopuru handiena duen establezimenduaren edo taldeko enpresaren zuzendaritzak hartuko du bere gain 1. paragrafoan aipatutako ardura.

3. Zuzentarau honen xedeetarako, ordezkaria edo ordezkariak hartuko da edo dira zuzendaritza nagusitzat, edo, bestela, 2. paragrafoko bigarren lerrokadan aipatutako zuzendaritza.

4. Erkidego-mailako enpresa-taldean sartuta dauden enpresa guztien zuzendaritzek, hala nola zuzendaritza nagusiak edo, 2. paragrafoko bigarren lerrokadaren zentzuan, erkidego-mailako enpresaren edo enpresa-taldearen zuzendaritza nagusitzat hartzen denak, beren ardurakoa izango dute 5. artikuluan aipatutako negoziazioak hasteko ezinbesteko informazioa lortzea eta helaraztea zuzentarau honen aplikazioak eragiten dien aldeei; bereziki, enpresaren edo taldearen nahiz lanpostuen egiturari buruzko informazioa. Betebehar hori 2. artikuluko 1. paragrafoko a) eta c) idatz-zatietan adierazitako langile-kopuruari buruzko informazioari egokituko zaio bereziki.

5. artikulua

Negoziazio-batzordea

1. 1. artikuluko 1. paragrafoan adierazitako helburua lortzearren, zuzendaritza nagusiak negoziazioa hasiko du europar enpresa-batzordea edo informazio- eta kontsulta-prozedura sortzeko, dela bere ekimenez, dela gutxienez 100 langilek edo haien ordezkariek idatziz eskatuta; gutxienez bi estatu kidetan kokatutako zenbait enpresa edo establezimendutakoak (bitakoak gutxienez) izan behar dute langile horiek.

2. Horretarako, negoziazio-batzorde bat eratuko da irizpide hauen arabera:

a) estatu kideek erabakiko dute nola aukeratu edo izendatu beren lurraldean aukeratu edo izendatu beharreko negoziazio-batzordekideak.

Estatu kideek zaindu beharko dute langileek beren gogoz bestera ordezkaririk ez duten enpresa eta/edo establezimenduetan langileek eskubidea izango dutela negoziazio-batzordeko kideak aukeratu edo izendatzeko.

Bigarren lerrokadak ez ditu baztertuko langileen ordezkaritza-organoa sortzeko gutxieneko langile-kopuruak ezartzen dituzten legedi eta/edo ohitura nazionalak;

b) negoziazio-batzordeko kideak aukeratu edo izendatzean, erkidego-mailako enpresa-taldeak edo enpresak estatu kide bakoitzean dauzkan langileen kopurua kontuan hartuko da, halako eran non estatu kide bakoitzean kide bat egongo baita estatu horretan diharduen eta estatu kide guztietan diharduten langileen % 10 (edo ehuneko horren zati bat) dauzkan langile-talde bakoitzeko.

c) negoziazio-batzordea nola dagoen osatuta eta negoziazioak hasi direla jakinaraziko zaie zuzendaritza nagusiei eta tokian tokiko zuzendaritzei, hala nola langileen eta enplegatzaileen europar erakunde eskudunei.

3. Negoziazio-batzordeari egokituko zaio, zuzendaritza nagusiarekin batera, europar enpresa-batzordearen edo enpresa batzordeen agintearen norainokoa, osaera, eskuduntzak eta iraupena zehaztea idatzizko akordio baten bidez, bai eta langileekiko informazio- eta kontsulta-prozedura bat aplikatzeko moduak finkatzea ere.

4. 6. artikuluaren araberako akordio bat lortzeko, zuzendaritza nagusiak negoziazio-batzordearekin egin beharreko bilera batera deituko du. Horren berri emango die tokian tokiko zuzendaritzei.

Negoziazio-batzordeak, zuzendaritza nagusiarekin bildu baino lehen eta ondoren, bilera egin ahal izango du, hura jakinarazteko beharrezko bitartekoak izanik, zuzendaritza nagusiko ordezkariak bertan egon gabe.

Negoziazio-batzordeak, negoziazioei begira, berak aukeratutako adituak eskatu ahal izango ditu bere lanean lagun diezaioten; aditu horien artean, gaitasuna eta erkidego-mailan aitorpena dituzten langile-erakundeetako ordezkariak egon ahal izango dira. Aditu horiek eta langile-erakundeetako ordezkariek negoziazio-bileretan parte hartu ahal izango dute aholkulari gisa, negoziazio-batzordeak eskatuta.

5. Negoziazio-batzordeak, gutxienez botoen bi hereneko gehiengoak erabakita, negoziazioak ez hastea erabaki ahal izango du 4. paragrafoari jarraiki, edo, bestela, hasitako negoziazioak bertan behera uztea.

Erabaki horrek 6. artikuluan aipatzen den akordioa lortzeko prozedura amaituko du. Erabaki hori hartzen denean, ez dira aplikagarriak izango I. eranskineko xedapenak.

Beharrezkoa izango da gutxienez bi urte igarotzea aipatu erabakia hartzen denetik negoziazio-batzorderako dei-eskaera aurkeztu ahal izan arte, interesa duten aldeek epe laburragoa hitzartu ezean.

6. Bestalde, 3. eta 4. paragrafoetan aipatutako negoziazioei dagozkien gastuak zuzendaritza nagusiaren kontura izango dira, negoziazio-batzordeak bere zeregina behar bezala betetzea izan dezan.

Printzipio hori gogoan hartuta, estatu kideek negoziazio-batzordearen funtzionamendua finantzatzeko arauak zehaztu ahal izango dituzte eta, konkretuki, aditu bat soilik finantzatzea erabaki ahal izango dute.

6. artikulua

Akordioaren edukia

1. Zuzendaritza nagusiak eta negoziazio-batzordeak lankidetza-espirituarekin negoziatu beharko dute, 1. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako langileekiko informazioa eta kontsulta gauzatzeko eran ados jartzeko.

2. Aldeen autonomia inola ere baztertu gabe, 1. paragrafoan aipatu eta zuzendaritza nagusiaren eta negoziazio-batzordearen artean egindako idatzizko akordioak hauek jasoko ditu:

a) zein diren akordioak eragindako erkidego-mailako enpresa-taldeko enpresa kideak edo erkidego-mailako enpresaren establezimenduak;

b) nola dagoen osatuta europar enpresa-batzordea, zenbat kide dituen eta nola dauden banatuta, kontuan har dadin, ahal den neurrian, beharrezkoa dela langileen ordezkaritza orekatua izatea jarduerei, mailei eta sexuei dagokienez, bai eta mandatuak zenbat iraungo duen ere;

c) zer eskuduntza dituen europar enpresa-batzordeak eta zein den harekiko informazio- eta kontsulta-prozedura, bai eta nola antola daitezkeen ere europar enpresa-batzordearekiko informazioa eta kontsulta eta langileak ordezkatzen dituzten organo nazionalekikoak, betiere 1. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako printzipioak errespetatuta.

d) europar enpresa-batzordearen bilerak non eta zer maiztasunarekin egingo diren, eta zenbat iraungo duten;

e) hala egokituz gero, europar enpresa-batzordearen barruan eratuko den batzorde murriztua nola egongo den osatuta, kideak nola aukeratuko diren, zer eskumen izango dituen eta nola bilduko den;

f) zer bitarteko finantzario eta material esleituko zaizkion europar enpresa-batzordeari;

g) akordioa noiz jarriko den indarrean, zenbat iraungo duen, noiz eta nola alda edo sala daitekeen, hala nola akordioa noiz negoziatu beharko den berriz, eta zer prozedura erabiliz, are, hala egokituz gero, erkidego-mailako enpresa-taldearen edo enpresaren egituran aldaketak gertatzen direnean ere.

3. Zuzendaritza nagusiak eta negoziazio-batzordeak informazio- eta kontsulta-prozedura bat edo gehiago ezartzea erabaki ahal izango dute idatziz, europar enpresa-batzordea sortu beharrean.

Erabakiak aurreikusi beharko du zer modalitateren arabera izango duten langileen ordezkariek biltzeko eskubidea, jakinarazten zaien informazioari buruzko iritziak elkarri adieraz diezazkioten.

Informazio hori, bereziki, langileen interesetan eragin nabarmena izan dezaketen nazioz gaindiko gaiei buruzkoa izango da.

4. Gainera, 2. eta 3. paragrafoetan aipatutako akordioak ez dira egongo I. eranskinean jasotako xedapen subsidiarioen mende, akordio horietan kontrakoa xedatu ezean.

5. Bestalde, 2. eta 3. paragrafoetan aipatzen diren erabakiak hartzeko, beharrezkoa izango da negoziazio-batzordeko kideen gehiengoa alde agertzea.

7. artikulua

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Xedapen subsidiarioak

1. Betiere 1. artikuluko 1. paragrafoan adierazitako helburua lortuko dela bermatzeko, zuzendaritza nagusia kokatuta dagoen estatu kideko legediak jasotako xedapen subsidiarioak aplikatuko dira:

- zuzendaritza nagusiak eta negoziazio-batzordeak hala erabakiz gero,

- zuzendaritza nagusiak negoziazioak hastea baztertzen badu 5. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen den eskaera egin eta sei hilabeteko epean, edo

- eskaera hori egin eta hiru urteko epean, ezin badute lortu 6. artikuluan jasotako akordioa, eta negoziazio-batzordeak ez badu hartu 5. artikuluko 5. paragrafoan aipatzen den erabakia.

2. Estatu kideko legediak aurreikusi eta 1. paragrafoan aipatzen diren xedapen subsidiarioek I. eranskineko arauak bete beharko dituzte.

III. ATALA

ZENBAIT XEDAPEN

8. artikulua

Informazio konfidentziala

1. Estatu kideek zaindu egingo dute negoziazio-batzordeko kideek, europar enpresa-batzordekoek eta, hala egokituz gero, laguntzen dieten adituek ez dutela baimenik izango hirugarrenei jakinarazteko berariaz konfidentzialki eman zaien informazioa.

Horrek berak langileen ordezkarientzat ere balioko du informazio- eta kontsulta-prozedura baten barruan.

Betebehar horrek, lehen eta bigarren lerrokadetan adierazitako pertsonak dauden lekua edozein izanda ere, haien mandatua amaitu ondoren ere iraungo du.

2. Estatu kide bakoitzak, kasu espezifiko batzuetan eta legedi nazionalak jarritako baldintzen eta mugen barruan, zaindu egingo du bere lurraldean dagoen zuzendaritza nagusia ez dela behartuta egongo inolako informaziorik jakinaraztera, baldin eta informazio horrek, bere izateagatik beragatik, eta irizpide objektiboen arabera, oztopo larriak jar baditzake eragindako enpresen funtzionamenduan, edo kalteak egin badiezazkieke xedapen horiek eragindako enpresei.

Kasuan kasuko estatu kideak dispentsa hori aldez aurreko baimen administratibo edo judizial baten baldintzapean jarri ahal izango du.

3. Estatu kide bakoitzak agindu bereziak eman ahal izango ditu bere lurraldean kokatutako enpresen eta establezimenduen zuzendaritza nagusiaren alde, baldin eta, zuzenean eta funtsean, informazioaren eta iritzien adierazpenaren orientazio ideologikoa

badute helburutzat eta, betiere, zuzentarau hau onartzen den egunean xedapen berezi horiek jasota badaude legedi nazionalean.

9. artikulua

Europar enpresa-batzordearen eta langileekiko informazio- eta kontsulta-prozeduraren funtzionamendua

Zuzendaritza nagusiak eta europar enpresa-batzordeak lankidetza-espirituarekin lan egingo dute, eta beren elkarrekiko eskubideak eta betebeharrak errespetatuko dituzte.

Gisa berean jokatuko da zuzendaritza nagusiaren eta langileen ordezkarien arteko lankidetzari dagokionez, langileekiko informazio- eta kontsulta-prozeduraren barruan.

10. artikulua

Langileen ordezkarien zeregina eta babesa

1. Beste erakunde edo instantzia batzuek gai honetan duten ahalmena baztertu gabe, europar enpresa-batzordeko kideek beharrezko bitartekoak izango dituzte erkidego-mailako enpresa-taldeko edo enpresako langileen interesak kolektiboki ordezkatzeko, zuzentarau honetan sorburu duten horretarako eskubideak aplikatuz.

2. Europar enpresa-batzordeko kideek, 8. artikulua baztertu gabe, informazioa emango diete erkidego-mailako enpresa-talde bateko enpresetako edo establezimenduetako langileen ordezkariei (edo, ordezkaririk izan ezean, langile guztiei) zuzentarau honetan xedatutakoaren arabera araututako informazio- eta kontsulta-prozeduraren edukiari eta emaitzei buruz.

3. Negoziazio-batzordeko kideek, europar enpresa-batzordekoek eta langileak 6. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako prozeduraren arabera ordezkatzen dituztenek beren eginkizunak betetzean izango dituzten babesa eta bermeak langileen ordezkarientzat, lan egiten duten herrialdean, indarreko legedi nazionalean edo ohituretan jasotakoen antzekoak izango dira.

Hori, bereziki, negoziazio-batzordearen nahiz europar enpresa-batzordearen bileretan edo 6. artikuluko 3. paragrafoan jasotzen den akordioaren barruan egindako beste edozein bileratan parte hartzeari dagokio, hala nola beren zereginak betetzeko nahitaez kanpoan daudenean soldata ordaintzeari, erkidego-mailako enpresa bateko edo enpresa-talde bateko langile direnen kasuan.

4. Ordezkaritza-eginkizuna nazioartean betetzeko beharrezkoa bada, negoziazio-batzordeko eta europar enpresa-batzordeko kideek soldatarik galdu gabe jasoko dute prestakuntza.

11. artikulua

Zuzentarau hau betetzea

1. Estatu kide bakoitzak zaindu egingo du bere lurraldean finkatutako erkidego-mailako enpresa baten establezimenduetako zuzendaritzak, erkidego-mailako enpresa-talde bateko enpresetako zuzendaritzak eta langileen ordezkariek edo, bestela, langileek berek bete egiten dituztela zuzentarau honetan adierazitako betebeharrak, zuzendaritza nagusia lurralde horretan kokatuta egon zein ez.

2. Estatu kideek neurri egokiak izango dituzte aurreikusita, zuzentarau hau betetzen ez bada ere, eta, bereziki, sorburu zuzentarau honetan duten betebeharrak betetzeko bidea emango duten prozedura administratibo edo judizialak badaudela zainduko dute.

3. Estatu kideek, 8. artikulua aplikatzerakoan, erabakita izango dute zer bide erabil ditzaketen langileen ordezkariek errekurtso administratiboa edo judiziala aurkezteko, zuzendaritza nagusiak konfidentzialtasuna eskatzen badu edo informaziorik ematen ez badu aipatu 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Prozedura horietan babes-klausulak egon ahal izango dira, kasuan kasuko informazioaren konfidentzialtasuna gordetzeko.

12. artikulua

Erkidegoko nahiz estatuko beste xedapen batzuekiko erlazioa

1. Europar enpresa-batzordearen informazioa eta kontsulta eta langileen ordezkaritza-organo nazionalenak elkarri egokituko dira, haietako bakoitzaren eskumenei eta parte-hartze esparruei dagokienez, bai eta 1. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako printzipioei dagokienez ere.

2. Europar enpresa-batzordearen informazioa eta kontsulta eta langileen ordezkaritza-organo nazionalenak elkarri egokitzeko erak 6. artikuluan adierazitako akordioak arautuko ditu. Akordio horrek ez ditu baztertuko zuzenbide nazionaleko xedapenak eta/edo ohitura nazionalak, langileekiko informazioari eta kontsultari dagokienez.

3. Akordio bidez zehaztutako modalitate horiek falta izanez gero, estatu kideek xedatuko dute informazio- eta kontsulta-prozesua europar enpresa-batzordean eta langileen ordezkaritza-organo nazionaletan egin behar direla, hartu behar diren erabakien ondorioz aldaketa garrantzitsuak gerta badaitezke lanaren antolaketan edo lan-kontratuetan.

4. Zuzentarau honek ez du eraginik izango 2002/14/EE zuzentarauan jasotako informazio- eta kontsulta-prozeduretan, ez eta 98/59/EE zuzentarauko 2. artikuluan eta 2001/23/EE zuzentarauko 7. artikuluan jasotako prozedura espezifikoetan ere.

5. Zuzentarau honen aplikazioa ez da nahikoa arrazoi izango estatu kideetan, zuzentarauak jasotako esparruan langileek duten babes-maila orokorrarekin alderatuta, gaur egun duten egoeran atzera egitea justifikatzeko.

13. artikulua

Egokitzapena

Erkidego-mailako enpresaren edo enpresa-taldearen egituran aldaketa handiak gertatu eta indarreko akordioetan aurreikusitako xedapenik ez badago, edo aplika daitezkeen bi akordiotako edo gehiagotako xedapenen artean arazoak sortzen badira, zuzendaritza nagusiak 5. artikuluan jasotako negoziazioa abiaraziko du, bere ekimenez, edo gutxienez ere bi estatu kidetan kokatutako gutxienez ere bi enpresa edo establezimendutako gutxienez ere 100 langilek edo haien ordezkariek idatziz eskatuta.

Sortuta dagoen europar enpresa-batzordeko edo sortuta dauden europar enpresa-batzordeetako bakoitzeko gutxienez hiru kide egongo dira negoziazio-batzordean, 5. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera aukeratutako edo izendatutako kideez gain.

Negoziazio horretan, sortuta dauden europar enpresa-batzordeak edo -batzordeek batzordeko edo batzordeetako kideen eta zuzendaritza nagusiaren artean erabakitakoaren araberako eran jarraituko dute funtzionatzen.

14. artikulua

Indarreko akordioak

1. Erkidego-mailako enpresek eta enpresa-taldeek ez dituzte bete behar izango, 13. artikuluan xedatutakoa baztertu gabe, sorburu zuzentarau honetan duten betebeharrak, baldin eta haietan:

a) langile guztiei aplika dakiekeen edo dakizkiekeen akordio bat edo batzuk lortu badira, eta akordioetan langileekiko nazioz gaindiko informazioa eta kontsulta aurreikusten badira 94/45/EE zuzentarauko 13. artikuluko 1. paragrafoaren edo 97/74/EE zuzentarauko 3. artikuluko 1. paragrafoaren arabera, edo akordio horiek berrikusi egin badira enpresetako edo enpresa-taldeetako egituran gertatutako aldaketen ondorioz, edo

b) 94/45/EE zuzentarauko 6. artikuluaren arabera egindako akordio bat sinatu edo berrikusi bada 2009ko ekainaren 5etik 2011ko ekainaren 5era bitartean.

Akordioa sinatzen edo berrikusten denean aplikagarria den zuzenbide nazionala lehen paragrafoko b) idatz-zatian aipatzen diren enpresetan eta enpresa-taldeetan aplikatzen jarraituko da.

2. Bestalde, 1. paragrafoan aipatzen diren akordioek indarra galtzen dutenean, akordio horietako aldeek batera erabaki ahal izango dute haiek luzatu edo berrikusi. Osterantzean, zuzentarau honetako xedapenak aplikatuko dira.

15. artikulua

Txostena

Batzordeak, beranduen jota 2016ko ekainaren 5ean, zuzentarau honetan xedatutakoa betetzeari buruzko txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari; gainera, hala egokituz gero, bidezko proposamenak gehituko ditu.

16. artikulua

Transposizioa

1. Estatu kideek, beranduenez ere 2011ko ekainaren 5ean, indarrean jarriko dituzte beharrezko lege-, arau- eta administrazio-xedapenak honako hauek betetzeko: 1. artikuluko 2., 3. eta 4. paragrafoak; 2. artikuluko 1. paragrafoko f) eta g) idatz-zatiak; 3. artikuluko 4. paragrafoa; 4. artikuluko 4. paragrafoa; 5. artikuluko 2. paragrafoko b) eta c) idatz-zatiak eta 4. paragrafoa; 6. artikuluko 2. paragrafoko b), c), e) eta g) idatz-zatiak; 10., 12., 13. eta 14. artikuluak; eta I. eranskineko 1. puntuko a), c) eta d) idatz-zatiak eta 2. eta 3. puntuak. Bestalde, bermatu beharko dute gizarte-mintzaideek, beranduen jota aipatu egun horretan, adostasun bidez hartuko dituztela beharrezko erabakiak; gainera, beharrezko neurri guztiak hartu beharko dituzte une oro bermatzeko lortuko direla zuzentarau honetan adierazitako emaitzak.

Estatu kideek xedapen aipatuak ezartzen dituztenean, zuzentarau hau aipatuko dute edo, bestela ere, zuzentaraua jasoko da xedapenekin batera argitalpen ofizialean. Estatu kideek, halaber, adieraziko dute indarreko lege-, arau- eta administrazio-xedapenetan zuzentarau honek indargabetutako zuzentarauari buruz egindako erreferentziak zuzentarau honexeri buruz ere egindakoak direla. Estatu kideek erreferentzia hori egiteko moduak erabakiko dituzte, bai eta aipamena nola egin ere.

2. Estatu kideek zuzentarau honek araututako esparruan hartzen dituzten barne-zuzenbideko oinarrizko erabakien testua jakinaraziko diote Batzordeari.

17. artikulua

Indargabetzea

Zuzentarau honek, 2011ko ekainaren 6tik aurrera, 94/45/EE zuzentaraua —II. eranskineko A zatian adierazitako zuzentarauek aldatua— indargabetuko du. Nolanahi ere, estatu kideek bete egin beharko dituzte II. eranskineko B zatian agertzen diren zuzentarauak estatuko zuzenbidean jasotzeko epeei dagokienez dauzkaten betebeharrak.

Indargabetutako zuzentarauari egindako erreferentziak zuzentarau honi egindakotzat hartuko dira, eta III. eranskineko korrespondentzia-taularen arabera interpretatuko dira.

18. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentarau hau Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta hogei egunera jarriko da indarrean.

Honako hauek 2011ko ekainaren 6az geroztik aplikatu ahal izango dira: 1. artikuluko 1., 5., 6. eta 7. paragrafoak; 2. artikuluko 1. paragrafoko a) idatz-zatitik e) idatz-zatira bitartekoak eta h) nahiz i) idatz-zatiak; 2. artikuluko 2. paragrafoa; 3. artikuluko 1., 2., 3., 5., 6. eta 7. paragrafoak; 4. artikuluko 1., 2. eta 3. paragrafoak; 5. artikuluko 1., 3., 5. eta 6. paragrafoak; 5. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatia; 6. artikuluko 1. paragrafoa, 2. paragrafoko a), d) eta f) idatz-zatiak eta 3., 4. eta 5. paragrafoak; 7., 8., 9.

eta 11. artikuluak; eta I. eranskineko 1. puntuko b), e) eta f) idatz-zatiak eta 4., 5. eta 6. puntuak.

19. artikulua

Hartzaileak

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaile.

Estrasburgon emana, 2009ko maiatzaren 6an.

Europako Parlamentuaren izenean,

Presidentea

H.-G. Pöttering

Kontseiluaren izenean,

Presidentea

J. Kohout

[1] 2008ko abenduaren 4ko irizpena (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea).

[2] Europako Parlamentuaren txostena, 2008ko abenduaren 16koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko abenduaren 17koa.

[3] L 254 EO, 1994.09.30ekoa, 64. or.

[4] L 80 EO, 2002.03.23koa, 29. or.

[5] L 225 EO, 1998.08.12koa, 16. or.

[6] L 82 EO, 2001.03.22koa, 16. or.

[7] Kontseiluaren 97/74/EE zuzentaraua, 1997ko abenduaren 15ekoa, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batura 94/45/EE zuzentaraua zabaltzen duena; zuzentarau hori europar enpresa-batzordea edo erkidego-mailako enpresetan eta enpresa-taldeetan langileekiko informazio- eta kontsulta-prozedura sortzeari buruzkoa da (L 10 EO, 1998.01.16koa, 22. or.).

[8] C 321 EO, 2003.12.31koa, 1. or.

[9] L 24 EO, 2004.01.29koa, 1. or.

*ANEXO I*

## REQUISITOS SUBSIDIARIOS

**(contemplados en el artículo 7)**

1. A fin de alcanzar el objetivo establecido en el artículo 1, apartado 1, y en los casos previstos en el artículo 7, apartado 1, se constituye un comité de empresa europeo cuya composición y competencias se regularán por las normas siguientes:

   a) Las competencias del comité de empresa europeo se determinarán con arreglo al artículo 1, apartado 3.

   La información del comité de empresa europeo se referirá en particular a la estructura, la situación económica y financiera, la evolución probable de las actividades, la producción y las ventas de la empresa o del grupo de empresas de dimensión comunitaria. La información y la consulta al comité de empresa europeo se referirán sobre todo a la situación y evolución probable del empleo, las inversiones, los cambios sustanciales que afecten a la organización, la introducción de nuevos métodos de trabajo o de nuevos métodos de producción, los traslados de producción, las fusiones, la reducción del tamaño o el cierre de empresas, de establecimientos o de partes importantes de estos, y los despidos colectivos.

   La consulta se efectuará de modo que permita a los representantes de los trabajadores reunirse con la dirección central y obtener una respuesta motivada a cualquier dictamen que puedan emitir.

   b) El comité de empresa europeo estará compuesto por trabajadores de la empresa de dimensión comunitaria o del grupo de empresas de dimensión comunitaria elegidos o designados por y entre los representantes de los trabajadores o, en su defecto, por el conjunto de los trabajadores.

   Los miembros del comité de empresa europeo serán elegidos o designados con arreglo a las legislaciones o prácticas nacionales.

   c) Los miembros del comité de empresa europeo serán elegidos o designados en proporción al número de trabajadores empleados en cada Estado miembro por la empresa o el grupo de empresas de dimensión comunitaria, de manera que para cada Estado miembro exista un miembro por cada grupo de trabajadores empleados en ese Estado miembro que represente el 10 % del número de trabajadores empleados en el conjunto de los Estados miembros, o una fracción de dicho grupo.

   d) Para coordinar sus actividades, el comité de empresa europeo elegirá en su seno un comité restringido de no más de cinco miembros, que deberá contar con las condiciones que le permitan ejercer su actividad regularmente.

   El comité de empresa europeo adoptará su reglamento interno.

   e) Se informará a la dirección central y a cualquier otro nivel de dirección adecuado de la composición del comité de empresa europeo.

   f) Cuatro años después de la constitución del comité de empresa europeo, este deliberará sobre si deben entablarse negociaciones con vistas a la celebración del acuerdo que se menciona en el artículo 6 o si deben mantenerse vigentes las disposiciones subsidiarias establecidas con arreglo al presente anexo.

   Los artículos 6 y 7 se aplicarán, *mutatis mutandis,* si se decide negociar un acuerdo con arreglo a lo dispuesto en el artículo 6, en cuyo caso la expresión «la comisión negociadora» se sustituirá por la de «el comité de empresa europeo».

2. El comité de empresa europeo tendrá derecho a mantener al menos una reunión anual con la dirección central para que se le informe y consulte, tomando como base un informe elaborado por la dirección central, sobre la evolución y perspectivas de las actividades de la empresa o grupo de empresas de dimensión comunitaria. Se informará de ello a las direcciones locales.

3. Cuando concurran circunstancias excepcionales o se adopten decisiones que afecten considerablemente a los intereses de los trabajadores, sobre todo en caso de traslados de empresas, de cierre de empresas o de establecimientos o de despidos colectivos, el comité restringido o, si este no existe, el comité de empresa europeo tendrá derecho a ser informado. Asimismo, tendrá derecho a reunirse, a petición propia, con la dirección central o cualquier otro nivel de dirección más adecuado de la empresa o del grupo de empresas de dimensión comunitaria que tenga competencias para adoptar decisiones propias, para que se le informe y consulte.

En el caso de una reunión organizada con el comité restringido, tendrán también derecho a participar los miembros del comité de empresa europeo elegidos o designados por los establecimientos y/o empresas directamente afectados por las circunstancias o decisiones de que se trate.

Esta reunión de información y consulta se efectuará con la debida antelación basándose en un informe redactado por la dirección central o por cualquier otro nivel de dirección adecuado de la empresa de dimensión comunitaria del grupo de empresas de dimensión comunitaria, sobre el que podrá emitirse un dictamen al término de la reunión o en un plazo razonable.

Esta reunión no afectará a las prerrogativas de la dirección central.

La información y la consulta previstas en tales circunstancias se efectuarán sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 1, apartado 2, y en el artículo 8.

4. Los Estados miembros podrán establecer normas sobre la presidencia de las reuniones de información y consulta.

El comité de empresa europeo o el comité restringido, ampliado, si procede, con arreglo al punto 3, párrafo segundo, estarán facultados para reunirse previamente a cualquier reunión con la dirección central sin que esté presente la dirección interesada.

5. Siempre que sea necesario para el desempeño de sus funciones, el comité de empresa europeo o el comité restringido podrá solicitar el asesoramiento de expertos por él elegidos.

6. Los gastos de funcionamiento del comité de empresa europeo correrán a cargo de la dirección central.

La dirección central que corresponda proporcionará a los miembros del comité de empresa europeo los recursos financieros y materiales necesarios para que puedan cumplir convenientemente su cometido.

En particular, la dirección central se hará cargo, salvo que se convenga otra cosa, de los gastos de organización de reuniones y de interpretación, así como de los gastos de alojamiento y viaje de los miembros del comité de empresa europeo y de su comité restringido.

Respetando estos principios, los Estados miembros podrán fijar normas relativas a la financiación del funcionamiento del comité de empresa europeo, pudiendo, en particular, limitar la financiación a un solo experto.

*ANEXO II*

## PARTE A

### Directiva derogada, con sus modificaciones sucesivas

### (contemplados en el artículo 17)

| | |
|---|---|
| Directiva 94/45/CE del Consejo | (DO L 254 de 30.9.1994, p. 64). |
| Directiva 97/74/CE del Consejo | (DO L 10 de 16.1.1998, p. 22). |
| Directiva 2006/109/CE del Consejo | (DO L 363 de 20.12.2006, p. 416). |

## PARTE B

### Plazos de transposición al Derecho nacional

### (contemplados en el artículo 17)

| Directiva | Plazo de transposición |
|---|---|
| 94/45/CE | 22.9.1996 |
| 97/74/CE | 15.12.1999 |
| 2006/109/CE | 1.1.2007 |

*ANEXO III*

**Tabla de correspondencias**

| Directiva 94/45/CE | Presente Directiva |
|---|---|
| Artículo 1, apartado 1 | Artículo 1, apartado 1 |
| Artículo 1, apartado 2 | Artículo 1, apartado 2, primera frase |
| — | Artículo 1, apartado 2, segunda frase |
| — | Artículo 1, apartados 3 y 4 |
| Artículo 1, apartado 3 | Artículo 1, apartado 5 |
| Artículo 1, apartado 4 | Artículo 1, apartado 6 |
| Artículo 1, apartado 5 | Artículo 1, apartado 7 |
| Artículo 2, apartado 1, letras a) a e) | Artículo 2, apartado 1, letras a) a e) |
| — | Artículo 2, apartado 1, letra f) |
| Artículo 2, apartado 1, letra f) | Artículo 2, apartado 1, letra g) |
| Artículo 2, apartado 1, letras g) y h) | Artículo 2, apartado 1, letras h) e i) |
| Artículo 2, apartado 2 | Artículo 2, apartado 2 |
| Artículo 3 | Artículo 3 |
| Artículo 4, apartados 1, 2 y 3 | Artículo 4, apartados 1, 2 y 3 |
| Artículo 11, apartado 2 | Artículo 4, apartado 4 |
| Artículo 5, apartado 1, y apartado 2, letra a) | Artículo 5, apartado 1, y apartado 2, letra a) |
| Artículo 5, apartado 2, letras b) y c) | Artículo 5, apartado 2, letra b) |
| Artículo 5, apartado 2, letra d) | Artículo 5, apartado 2, letra c) |
| Artículo 5, apartado 3 | Artículo 5, apartado 3 |
| Artículo 5, apartado 4, párrafo primero | Artículo 5, apartado 4, párrafo primero |
| — | Artículo 5, apartado 4, párrafo segundo |
| Artículo 5, apartado 4, párrafo segundo | Artículo 5, apartado 4, párrafo tercero |
| Artículo 5, apartados 5 y 6 | Artículo 5, apartados 5 y 6 |
| Artículo 6, apartado 1, y apartado 2, letra a) | Artículo 6, apartado 1, y apartado 2, letra a) |
| Artículo 6, apartado 2, letra b) | Artículo 6, apartado 2, letra b) |
| Artículo 6, apartado 2, letra c) | Artículo 6, apartado 2, letra c) |
| Artículo 6, apartado 2, letra d) | Artículo 6, apartado 2, letra d) |
| — | Artículo 6, apartado 2, letra e) |
| Artículo 6, apartado 2, letra e) | Artículo 6, apartado 2, letra f) |
| Artículo 6, apartado 2, letra f) | Artículo 6, apartado 2, letra g) |
| Artículo 6, apartados 3, 4 y 5 | Artículo 6, apartados 3, 4 y 5 |
| Artículo 7 | Artículo 7 |

| Directiva 94/45/CE | Presente Directiva |
|---|---|
| Artículo 8 | Artículo 8 |
| Artículo 9 | Artículo 9 |
| — | Artículo 10, apartados 1 y 2 |
| Artículo 10 | Artículo 10, apartado 3 |
| — | Artículo 10, apartado 4 |
| Artículo 11, apartado 1 | Artículo 11, apartado 1 |
| Artículo 11, apartado 2 | Artículo 4, apartado 4 |
| Artículo 11, apartado 3 | Artículo 11, apartado 2 |
| Artículo 11, apartado 4 | Artículo 11, apartado 3 |
| Artículo 12, apartados 1 y 2 | — |
| — | Artículo 12, apartados 1 a 5 |
| — | Artículo 13 |
| Artículo 13, apartado 1 | Artículo 14, apartado 1 |
| Artículo 13, apartado 2 | Artículo 14, apartado 2 |
| — | Artículo 15 |
| Artículo 14 | Artículo 16 |
| — | Artículo 17 |
| — | Artículo 18 |
| Artículo 16 | Artículo 19 |
| Anexo | Anexo I |
| Punto 1, parte introductoria | Punto 1, parte introductoria |
| Punto 1, letra a) (parcialmente), y punto 2, párrafo segundo (parcialmente) | Punto 1, letra a) (parcialmente) |
| Punto 1, letra b) | Punto 1, letra b) |
| Punto 1, letras c) (parcialmente) y d) | Punto 1, letra c) |
| Punto 1, letra c) (parcialmente) | Punto 1, letra d) |
| Punto 1, letra e) | Punto 1, letra e) |
| Punto 1, letra f) | Punto 1, letra f) |
| Punto 2, párrafo primero | Punto 2 |
| Punto 3 | Punto 3 |
| Punto 4 | Punto 4 |
| Punto 5 | — |
| Punto 6 | Punto 5 |
| Punto 7 | Punto 6 |
| — | Anexos II y III |